

IRUÑEA / Irakurleak trebatzen

Amaiur ikastolako hainbat ikasle eta ' Kaxkabilo ' iratxoa, Afrikari buruzko lanak erakusten.

AMAIUR ikastolan, irakurketa plana dela eta, irakurketaren irakaskuntza modu sistematiko eta koordinatuan egiten ahalegintzen ari gara. Hala, ikasleen irakurketa estrategiak bermatuak izan daitezzen eta motibazioa sustatu asmoz, hainbat ekintza planifikatu eta garatuko ditugu aurrean ere. Irakurketarako giroa piztu nahian, iaz, liburutegiko pertsonaia sortu genuen, Kaxkabilo, iratxo irakurzalea. Pertsonai honek hainbat aplikazioetara egokitze aukera ematen digu: iragarkiak, kartelak edota horma-irudiak. Iratxo xarmat horren helburua antolatzen diren ekintzak bultzatzea, babestea eta koherentzia ematea da, gisa horretan, itzal babesgarri moduko funtzioa betetzen duela.

Uda partean, Afrikatik barna ibili eta gero, ikasturte hasierarekin batera berriro gurekin itzuli da Kaxkabilo, beti bezala, pozik eta alai.

Bizi izan duenaren berri emateko eskutitz bat idatzi eta gelaz gela gonbidapen bat luzatu die ikasle guztiei liburutegira joateko. Bertako txoko batean txilaba eta guzti aurkitu dute Amaiur ikastolakoek Kaxkabiloren opari batekin: arabiarrez idatzitako ipuin klasikoak eta adin bereko haurren bizimoduaren berri ematen duten liburuak eskuragarri izanen dituzte hemendik aurrera.

Haur Hezkuntzatik 6.maila bitarteko ikasle guztiek izan dute aukera liburu horiek behatzeko, azter-tzeko, irakurtzeko Nolanahi ere, primeran aritu dira liburutegi saio hauetan.

Ikasleen jakin-mina asetzeko asmotan, Etiopiako eskola baten inguruko Power pointen bidez egindako emanaldia ere eskaini die Kaxkabilok. Iratxoak egin dituen lagunak, ikasgelak, lokuluxka gelak, jolasak, erabiltzen dituzten materialak eta abar aurkeztu ditu, alegia. Horrezaz gain, eta lehenengo aldiz, Kaxkabiloren ahotsa entzuteko aukera izan dute ikasleek, orain arte eskutitzen bitartez komunikatzen baitziren. Afrikako musika eta dan-tza ere ikusten aritu dira 4.mailakoen eskutik.

Halere, Kaxkabiloren nahia haratago doanez, eskaera berezia egingo die ikasleei: Afrikako Estatu desberdinak kontuan hartuz, liburu erraldoi bat egitea. Beraz, gela bakoitzak Estatu bat aukeratu, informazioa bildu eta mota ezberdinetako testuak sortuko ditu, Estatuaren berri emanez. Horretarako, ikasleei gehien gustatzen zaizkien materialak erabiliko dituzte, hau da, argazkiak marrazkiak eta postalak.

Ondoren, Amaiur ikastola Afrikara joan zeneko liburu erraldoi arrakastatsu hori, altxor bat bailitzan gordeko dugu.